

Multiplikadoreak bear ditugu

Tierra Vasca, 111. zk., 1965-09: 7.

Euskeraren etorkisuna usmatzea ez da ereza.

Batzuek gain-bera galtzen dijoala uste dute; besteak, berriz, zuzen gora datorrela esaten dute.

¿Gain-bera zergaitik?

Gero ta izkuntz-zabalkunde erreminta geiago sortzen eta zabaltzen ari diralako; ta izkuntz-bide oiek (TV, errati, zine, izparringi, errebista ta abar) erderaz datozelako; gero ta euskeldun ume geiago ikastolara irixten ari diralako, ta ikastola ori erderaz datorkietelako; gero ta euskotar geiago bere eritik kanpora urten eta erdera bide errezagoak arkitzen dituztelako.

Ta, egia esan, ez dute arrazoi paltarik.

¿Ta zuzen gora dijoala, zergaitik?

Ba, gero eta eusko ikastola geiago irikitzen ari diralako, euskel izparringi ta errebista berriak sortzen ari diralako, ta gero ta euskera zaletasun geiago azaltzen ari dalako.

Ta au ez da gezurra. Ben-benetan, euskera-erreminta berri asko ari dira sortzen egun oietan.

Ta, orduan, nun gaude?

Au da, ba, erabakitzen zaila. Gora edo bera goazen, edo len geunden tokian bertan geldituak geran, ez dakigu ziur. Bear ba da, ortarako bear ditugun neurri-errementarik ez da gu erabiltzerik izandu.

¡Nola nai, atzera edo aldeetara begiratu gabe, ba degu bitartean aurrera bideko zer egiña pranko!

Zer bear-bearreko lan daukagu gaur aurrean gure izkuntza bizirik aterako bada.

Batetik izkuntza batu.

Lan au gabe beste guziak alperrikakoak izango lirake. Bakoitzak bere erriko izkuntza erabiltzea ondo dago; bañan euskera izkuntz bezela aurrera aterako ba da, beste izkuntzak oi duten bezela erakus-bide bekarrean jo bear du. ¿Zertarako? Alkar errez ulertu, liburuak errez eta merke zabaldu ta euskaldun danok bilduko galduan izkuntza indartu, zaildu ta aberasteko.

Bestetik, ume-ikastolak jartzen ondo dago (baita ondo baño obeto ere), bañan orrekin ez degu naikoa izango, orrekin ez diogu gure izkuntzak bear duan bultzada emango. Euskeldun berri oiek *sumando* on-onak dira, bañan *sumando* oietzaz gañera *multiplikadoreak* bear ditugu euskaldunak ugaritzeko; beste izkuntzetan bear dituzten bezela. Zer multiplikadore klase? Maixuak, adi-bidez. Maixuak gertatu bear ditugu euskera batuan, eta askar, euskeraz errez eta ondo erakusteko. Gero, maixu bakoitzak bere bidetik lana ondo ta gogoz ta ugaritzu egingo du. Baiñan ortarako maixuak gertu, bere eskuetan balio duten erremintak jarri ta mistikaz jantzi bear dira.

Lan oiek danak eginda ere naiko lan izango degu ta.